# Xedapen Orokorrak

## NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

### Zk-1820

66/2000 DEKRETUA, apirilaren 4ekoa, zeinaren bitartez Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeko arauak ematen baitira.

Euskal Autonomia Erkidegoan badira txakurren inguruko kontu ezberdinak arautzen dituzten zenbait arau edo xedapen.

Dekretu honekin zuzenean loturik, eta animalien identifikazioari dagokionez, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 1993ko maiatzaren 5eko Agindua argitaratu zen, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko abereak identifikatzeko metodo elektronikoen erabilera arautu baitzen, eta, geroago, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 1993ko maiatzaren 25eko Agindua, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko txakurren identifikazioa arautu baitzen.

Bestetik, animaliak babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legeak arau esparru orokorra eman zion Euskal Autonomia Erkidegoari, txakurrekin eta bestelako animaliekin zerikusia duten egoeretan ezartzeko arau esparrua, alegia.

Gerora, azaroaren 15eko 444/1994 Dekretua argitaratu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko gune zoologikoen baimen, erregistro eta kontrolari buruzkoa.

Gizarteak gero eta kezka handiagoa azaldu du txakur jakin batzuekin gertatu diren gorabehera batzuen ondorioz. Eusko Legebiltzarrak kezka horren berri izanik, arau bat emateko eskatu dio Eusko Jaurlaritzari, animalia horien kontrola eta animaliok hazi eta saltzeko establezimenduen kontrola arautzeko, alegia, baita gure autonomia erkidegoko txakurren liburu genealogikoei eta txakur-trebatzaileen erroldari buruzko kontuak arautzeko ere. Azken bi puntuok, baina, animaliak babesteko legearen erreformarekin batera jorratu beharko dira.

Hortaz, oraingo xedapen honekin, eta lege mailako araua eman bitartean, gure autonomia erkidegoko arauteria osatzen da, herritarrei eta gainerako animaliei traba eta kalteak ahal den neurrian eragozteko eta arazo horiek kontrolatzeko. Arauteria horren barruan, arreta berezia jartzen zaie «animalia arriskugarritzat» hartutikoei.

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

### N°-1820

DECRETO 66/2000, de 4 de abril, por el que se regula la tenencia de animales de la especie canina en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La normativa que en la Comunidad Autónoma del País Vasco regula los diferentes aspectos referentes a los animales de la especie canina está compuesta por diversas disposiciones.

En los que afecta mas directamente al presente Decreto, y en referencia a la identificación del animal, se publicó la Orden de 5 de mayo de 1993, del Consejero de Agricultura y Pesca, por la que se regula la utilización de métodos electrónicos de identificación animal en la Comunidad Autónoma del País Vasco, y la Orden de 25 de mayo de 1993, del Consejero de Agricultura y Pesca, por la que se regula la identificación de los animales de la especie canina en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Por otro lado, la Ley 6/1993, de 29 de octubre, de Protección de los Animales, vino a dotar a la Comunidad Autónoma del marco general regulador de las diversas situaciones que afectan, entre otros, a los animales de la especie canina.

Posteriormente, fue publicado el Decreto 444/1994, de 15 de noviembre, sobre autorización, registro y control de núcleos zoológicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El Parlamento Vasco, haciéndose eco de la creciente preocupación que en los últimos tiempos se está dando en la sociedad a propósito de diversos incidentes acaecidos con determinados perros, ha instado al Gobierno a elaborar una normativa que regule el control de estos animales y de los establecimientos de cría y venta, así como la regulación de los libros genealógicos caninos en el ámbito de nuestra Comunidad Autónoma y el censo de adiestradores de perros, puntos estos dos últimos que habrán de abordarse junto con la reforma de la actual Ley de Protección de los Animales.

Con la presente norma, y hasta tanto se regule la materia con rango de Ley, se completa la reglamentación existente en nuestra Comunidad Autónoma dirigida a controlar y evitar en lo posible daños y molestias a los ciudadanos y a los demás animales. Dentro de esta reglamentación se presta especial atención a los que se clasifican como «Animales de Riesgo».

Arau hau egiteko, kontsulta egin zaie ukituriko erakunde eta sektoreei, eta, horrez gain, jendaurreko erakustaldiaren izapidea bete da.

Hala, animaliak babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legearen azken xedapenetariko lehenengoan aurreikusitakoaren arabera, aipaturiko legea garatzeko eman da dekretu hau, txakurrak edukitzeari dagokionean garatzeko, hain zuen ere.

Ondorioz, Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorriz, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren proposamenez, lehendakariak onartu ondoren eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2000ko apirilaren 4an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Xedea eta aplikazio eremua.

Txakurrak edukitzeko arauak ematea da dekretu honen xedea, eta Euskal Autonomia Erkidegoan dauden edo dabiltzan txakur guztiek osatzen dute dekretuaren aplikazio eremua, txakurren jatorria edo arraza edozein delarik.

*2. artikulua.–* Animalia arriskugarriaren definizioa.

1.– Dekretu honi dagokionez, eta herri segurtasunari buruzko legerian xedaturikoa baztertu gabe, ondoko hau hartuko da «animalia arriskugarritzat»: udal agintari eskudunek banaka halakotzat jo eta hala katalogaturiko txakurra. Horretarako irizpide objektibo batzuk hartuko dira kontutan, hala nola salaketarik jaso izana, portaera oldarkor edo erasokorra agertu izana, edo pertsona eta/edo animalientzako arriskua agerian jartzen duen beste edozein inguruabar.

2.– Udal agintariek txakur bat «animalia arriskugarritzat» katalogatuz gero, sailkapen horrek Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan izango ditu ondorioak.

*3. artikulua.–* Identifikazioa, erregistroa eta dokumentazioa.

1.– Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 1993ko maiatzaren 25eko Aginduaren 2. eta 3. artikuluetan xedaturikoaren arabera (agindu horren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko txakurren identifikazioa arautu baitzen), txakurrek bizi ohi diren udalerriko udaletxean erroldatu eta identifikaturik egon behar dute, eta, tokian tokiko foru aldundiaren bitartez, erregistraturik egon behar dute Euskal Autonomia Erkidegoko Abereen Identifikazio Elektronikoaren Erregistro Orokorrean. Erregistro hori 1993ko maiatzen 5eko Aginduak sortu zuen, abereak identifikatzeko metodo elektronikoen erabilera arautu baitzuen.

En la elaboración de la presente norma han sido consultados diferentes entidades y sectores afectados, habiendo sido igualmente sometida a información pública.

Así lo dicho, y conforme a lo previsto en la Disposición Final Primera de la meritada Ley 6/1993, de 29 de octubre, de Protección de los Animales, el presente Decreto se dicta en desarrollo de la misma en lo referido a la tenencia de animales de la especie canina.

En su virtud, de conformidad con la Comisión Jurídica Asesora, a propuesta del Consejero de Agricultura y Pesca, previa aprobación del Lehendakari y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 4 de abril de 2000.

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Objeto y ámbito de aplicación.

La presente norma tiene por objeto regular los diferentes aspectos de la tenencia de animales de la especie canina, siendo el ámbito de aplicación de la misma la totalidad de animales de dicha especie que, con independencia de su origen o raza, se hallen o circulen por la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Artículo 2.–* Definición de Animal de Riesgo.

1.– A los efectos del presente Decreto, y sin perjuicio de lo que prevea la legislación aplicable en materia de seguridad pública, se considerará «Animal de Riesgo», a todo animal de la especie canina que, con carácter individual, haya sido catalogado como tal por las autoridades municipales competentes atendiendo a criterios objetivos tales como haber sido objeto de denuncias por parte de particulares, manifestar un comportamiento agresivo, o cualquier otra circunstancia que ponga de manifiesto la peligrosidad del animal respecto a las personas y/o animales.

2.– La catalogación como «Animal de Riesgo» por parte de la autoridad municipal extenderá sus efectos a todo el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Artículo 3.–* Identificación, registro y documentación.

1.– En virtud de lo dispuesto en los artículos 2 y 3 de la Orden del 25 de Mayo de 1993, del Consejero de Agricultura y Pesca, por la que se regula la identificación de los animales de la especie canina en la Comunidad Autónoma del País Vasco, éstos deberán estar censados e identificados en el Ayuntamiento del municipio donde residan habitualmente, así como encontrarse inscritos, a través de la correspondiente Diputación Foral, en el Registro General de Identificación Electrónica de Animales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, creado por la Orden de 5 de Mayo de 1993 por la que se regula la utilización de métodos electrónicos de identificación animal.

2.– Aurreko paragrafoan aipaturiko identifikazioa «transponder» izeneko mikrotxip elektronikoa erabiliz egingo da. Mikrotxip hori txakurraren lepoaren ezkerreko aldean jarriko da, 1993ko maiatzaren 25eko Aginduaren 4.1. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

3.– Artikulu honen 1. paragrafoan aipaturiko inskripzioa lurraldeko erregistroan egingo da, zeina lurraldean lurraldeko foru aldundiko Abeltzaintza Zerbitzuak sortu eta kudeatuko baitu.

4.– Txakurren identifikazio eta erroldatzea bultzatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko udalek identifikazio kanpainak egingo dituzte urtero, foru erakundeekin koordinaturik.

5.– Animalien jabeek eguneraturik eduki behar dute, betiere, Txakurren Osasun Liburuxka, 1993ko maiatzaren 25eko Aginduaren 5. artikuluan xedaturikoaren ildotik.

6.– «Animalia arriskugarritzat» katalogaturiko txakurren kasuan, derrigorrezkoa da katalogazio hori Txakurren Osasun Liburuxkan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Abereen Identifikazio Elektronikoaren Erregistro Orokorrean agertzea.

Horrez gain, kanpoko identifikazio bat emango zaie, betiere agerian eraman behar izango dutena.

*4. artikulua.*– Animaliak edukitzeko baldintza orokorrak.

1.– Txakurrik eduki ahal izateko, jabeak baldintza batzuk bete behar ditu, hots, janaria, edaria eta osasun laguntza eman behar dizkio txakurrari, baita animaliaren beharrizan fisiologiko eta etologikoetarako egokiak diren instalazioak ere, animaliak babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legearen 4. artikuluan xedaturikoaren arabera.

2.– Txakurren jabeek erantzukizun zibileko nahitaezko asegurua egin behar dute, animaliek kalte-galerarik eraginez gero, kalte-galerok estaltzeko.

Hala, erantzukizun zibileko aseguruaren urteko ordainketa eginda dagoela bermatzen duen ordainagiria Txakurren Osasun Liburuxkari erantsi behar zaio.

3.– Hiriko bide eta leku publikoetan, hala nola eraikin kolektiboetako zati komunetan ere, txakurrak kontrolpean eta uhal batez loturik eduki behar dira. Uhalak egokia izan behar du animaliaren ezaugarrietarako, eta gehienez bi metro luze izan daiteke.

4.– Aurreko paragrafoan ezarritakoari kalterik egin gabe, Udalek, beren eskumenen eremuan, jolas edo aisiarako eremuak prestatu ahal izango dituzte txakurrentzat.

2.– La identificación a la que se refiere el párrafo anterior, deberá realizarse mediante la utilización del microchip electrónico, denominado «transponder», que será implantado en la parte lateral izquierda del cuello del animal conforme a lo establecido en el artículo 4.1 de la precitada Orden de 25 de Mayo de 1993.

3.– La inscripción a que se refiere el párrafo 1 de este artículo se llevará a cabo en el Registro Territorial creado y gestionado por los Servicios de Ganadería de las Diputaciones Forales en cada uno de sus respectivos Territorios Históricos.

4.– Con el objeto de potenciar el censado y la identificación de los animales de la especie canina, se llevarán anualmente a cabo campañas de identificación por parte de los diferentes Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en coordinación con sus respectivos Organos Forales.

5.– Los propietarios de los animales deberán tener permanentemente actualizada la Cartilla Sanitaria Canina correspondiente, en aplicación del artículo 5 de la citada Orden de 25 de Mayo de 1993.

6.– En el caso de perros catalogados como «Animales de Riesgo», será necesario que dicha catalogación figure, tanto en la propia Cartilla Sanitaria Canina de los mismos, como en el Registro General de Identificación Electrónica de Animales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Asimismo, les será expedida una identificación exterior que deberán llevar permanentemente visible.

*Artículo 4.*– Condiciones generales de tenencia de los animales.

1.– La tenencia de animales de la especie canina estará condicionada al hecho de que el propietario de aquéllos les procure alimentación, bebida y asistencia sanitaria, así como unas instalaciones adecuadas a sus necesidades fisiológicas y etológicas, de conformidad con lo establecido en el artículo 4 de la Ley 6/1993, de 29 de octubre, de Protección de los Animales.

2.– Los propietarios de animales de la especie canina, tendrán la obligación de constituir un seguro obligatorio de responsabilidad civil que cubra los daños y perjuicios que pudieran provocar dichos animales.

En tal sentido, el correspondiente recibo que garantice el pago anual del seguro de responsabilidad civil, deberá incluirse, en todo caso, en la Cartilla Sanitaria Canina.

3.– En las vías y espacios públicos urbanos, así como en las partes comunes de los inmuebles colectivos, los animales de la especie canina deberán ir bajo control y sujetos mediante el uso de una correa, adecuada a las características del animal, y con una longitud máxima de dos metros.

4.– Sin perjuicio de lo establecido en el párrafo anterior, los Ayuntamientos, en el ámbito de sus competencias, podrán habilitar zonas de esparcimiento para animales de la especie canina.

5.– Txakurra daukana edo txakurraz baliatzen dena izango da txakurrak eragindako kalte, galera edo eragozpenen erantzulea, nahiz eta txakurrak ihes egin edo galdu, Kode Zibilaren 1905. artikuluan xedatutakoaren arabera.

6.– Txakurren osasun egoera ikuskatu ahal izateko, jabeek albaitaritza kontroleko azterketa klinikoa egin behar diete urtean behin. Kontrol horretan alderdi hauek aztertuko dira:

a) Aberearen osasun egoera orokorra.

b) Aberearen identifikazioa.

7.– Azterketa klinikoa egitean, albaitariak anomaliarik sumatuz gero, haren berri emango dio ofizialki udal agintaritzari, egin beharreko espedientea egin dezan.

*5. artikulua.–* «Animalia arriskugarriak» edukitzeko baldintza bereziak.

»Animalia arriskugarrien» kasuan, jabeek, hazleek edo edukitzaileek —aurreko artikuluan jasotako baldintza orokorrez gain eta herri segurtasunari buruzko legerian xedaturikoez gain— ondoko baldintza berezi hauek bete behar dituzte:

a) Animaliaren ihesa eragozteko segurtasun sistema egokiaz hornitu behar da txakurra dagoen leku edo esparrua, auzokoentzat, kaletik pasatzen direnentzat edo gainerako animalientzat inolako arriskurik ez dagoela bermatzeko.

b) Debekaturik dago luza daitezkeen uhalak erabiltzea animalia lotzeko.

c) Bide publikoetan, eraikin kolektiboetako zati komunetan eta, oro har, leku publikoetan, derrigorrezkoa da txakurrak une guztietan muturrekoa eramatea.

d) «Animalia arriskugarritzat» katalogaturik dagoela dioen identifikazio plaka bat eraman behar du halako txakurrak, betiere agerian eta idunekotik loturik, dekretu honen 3.6. artikuluan adierazi bezala. Plaka hori, bestetik, gerora ezarriko den ereduaren araberakoa izango da.

e) Ezin dute inola ere parte hartu txakur erakusketa, lehiaketa edo bestelako gertakizunetan.

*6. artikulua.–* Txakurrentzako gune zoologikoak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko gune zoologikoen baimen, erregistro eta kontrolari buruzko azaroaren 15eko 444/1994 Dekretuaren 2.1.b) artikuluan jasotakoak hartuko dira txakurrentzako gune zoologikotzat, eta dekretu horretan ezarritzako funtzionamendu baldintzak bete behar dituzte guneok.

2.– Txakurrak trebatzeko zentroek langile baimenduak izan behar dituzte. Langileok txakur-trebatzailea-

5.– El poseedor de un animal, o el que se sirve de él, será responsable de los daños, perjuicios y molestias que causare, aunque se le escape o extravíe, conforme a lo fijado por el artículo 1905 del Código Civil.

6.– Al objeto de poder supervisar el estado sanitario de los animales de la especie canina, los propietarios de los mismos deberán someterlos, con una periodicidad anual, a un examen clínico de control veterinario que deberá abarcar los siguientes aspectos:

a) Estado sanitario general del animal.

b) Identificación del animal.

7.– En el caso de que, en la realización de cualquier tipo de examen clínico, el técnico veterinario detectase alguna anomalía, comunicará oficialmente tal circunstancia a las respectivas autoridades municipales, al objeto de que las mismas instruyan el correspondiente expediente.

*Artículo 5.–* Condiciones particulares de tenencia de Animales de Riesgo.

En el caso de «Animales de Riesgo», sus propietarios, criadores o poseedores deberán cumplir, además de las condiciones generales de tenencia de animales recogidas en el artículo anterior y las contenidas en la legislación aplicable en materia de seguridad pública, las condiciones particulares que figuran a continuación:

a) El recinto donde se hallare el animal, deberán proveerlo de adecuados sistemas de seguridad que impidan la huida del mismo, con el fin de garantizar la total ausencia de peligro o riesgo tanto para los vecinos y/o transeúntes como para otros animales.

b) Quedarán prohibidas las correas extensibles de sujeción.

c) Será obligatorio el uso permanente del bozal en las vías públicas, en las partes comunes de los inmuebles colectivos y en los espacios públicos en general.

d) Deberán llevar permanentemente visible, y prendida del collar, una placa identificativa de su catalogación como «Animal de Riesgo», señalada en el artículo 3.6 del presente Decreto, y conforme al modelo que en su momento se fije.

e) Quedarán excluidos de participar en exposiciones, concursos y otros eventos de la especie canina.

*Artículo 6.–* Núcleos zoológicos caninos.

1.– Se entiende por núcleos zoológicos caninos aquellos incluidos en el artículo 2.1.b) del Decreto 444/1994, de 15 de noviembre, sobre autorización, registro y control de núcleos zoológicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, debiendo cumplir los requisitos de funcionamiento recogidos en el mismo.

2.– Los centros de adiestramiento canino, deberán disponer de personal autorizado en posesión de su co-

ren titulua eduki behar dute, ofizialki baimenduriko erakunde batek luzaturik.

3.– Zentro hauetan egindako trebakuntza bakar-bakarrik lan edo kirol praktiketara eta obedientzia ariketetara zuzenduko da, eta ariketa horien barruan ez dira erasotzeko edo defendatzeko aginduak sartuko, aplikazio profesionalen kasua salbuetsirik.

4.– Jarraian adieraziko diren txakur zentroek erantzukizun zibileko nahitaezko asegurua eduki behar dute:

a) Txakurtegiak.

b) Animalien egoitza eta aterpeak.

c) Trebakuntza eskolak.

d) Animalien bilketa zentroak.

e) Animaliak hazi, saldu edo alokatzeko zentroak.

*7. artikulua.–* Animaliak laga edota saltzea.

1.– Txakurrik laga edo saltzen duenak nahitaez jakinarazi behar dio Udal Administrazio eskudunari, udal erroldan jabe edo edukitzaile berriaren izena jaso dadin.

2.– Txakurrik laga edo saltzeak betebehar hau dakar: jabe berriari animalia behar bezala identifikaturik eta erroldaturik eta Txakurren Osasun Liburuxka eguneraturik duela ematea.

*8. artikulua.–* Animaliak hiltzea.

1.– Epai edo administrazio prozedura zehatzaileren baten ondorioz, arau-haustea eragin duen txakurra konfiskatzea erabakiz gero, Udal Administrazioak animalia hiltzea ebatz lezake, jurisdikzio erakunde eskudunak, kasuan kasu, xedatzen duenarekin bat etorriz.

Adierazitakoa gorabehera, eta txakurra hil baino lehen, berriz hezteko edo gizarteratzeko prozesu bat ezartzeko aukera aztertu beharko du erakunde zehatzaileak.

2.– Edonola ere, animaliak babesteko 6/1993 Legearen 17. artikuluko 2 eta 3. paragrafoetan xedaturikoa bete beharko da, abereak hiltzeko baldintza etikoei dagokienez.

*9. artikulua.–* Zehatzeko araubidea.

1.– Dekretu hau haustea edo ez betetzea zehatzeko araubidea —herri segurtasunari buruzko legerian bildutakoaz gain— animaliak babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legearen V. tituluan ezarritakoa da. Araubide hori, gerora, Euskal Autonomia Erkidegoko gune zoologikoen baimen, erregistro eta kontrolari buruzko azaroaren 15eko 444/1994 Dekretuaren IV. kapituluak garatu zuen zati batez.

rrespondiente título de adiestrador canino, emitido por una entidad oficialmente autorizada.

3.– El adiestramiento canino impartido en estos centros, únicamente estará dirigido a prácticas de trabajo, deportivas y ejercicios de obediencia, en los que en ninguno de los casos se incluyan órdenes de ataque y defensa, exceptuando los casos de aplicaciones profesionales.

4.– Deberán contar con un seguro obligatorio de responsabilidad civil los siguientes centros caninos:

a) Perreras.

b) Residencias y refugios de animales.

c) Escuelas de adiestramiento.

d) Centros de recogida de animales.

e) Centros de cría, comercio o alquiler de animales

*Artículo 7.–* Cesión y venta.

1.– Quienes cediesen o vendiesen un animal de la especie canina tendrán la obligación de comunicarlo a la Administración Municipal correspondiente, con el fin de que en el censo municipal conste la identidad del nuevo propietario o poseedor.

2.– Cualquier venta o cesión conllevará la obligación de entregar al nuevo propietario los animales debidamente identificados, censados y con la Cartilla Sanitaria Canina actualizada.

*Artículo 8.–* Sacrificio.

1.– Si como consecuencia de un procedimiento sancionador administrativo o judicial, se acordara el decomiso del animal de la especie canina objeto de la infracción, la Administración Municipal podrá determinar el sacrificio del animal, de conformidad, en su caso, con lo que determine el órgano jurisdiccional competente.

No obstante lo dicho, y antes de proceder al sacrificio del animal, el órgano sancionador deberá valorar la posibilidad de someter al animal a un proceso de reeducación o socialización.

2.– En cualquier caso, habrá de cumplirse lo establecido en los párrafos 2 y 3 del artículo 17 de la Ley 6/1993 de Protección de los Animales, relativo a las condiciones éticas para el sacrificio de animales.

*Artículo 9.–* Régimen sancionador.

1.– El régimen sancionador aplicable a las infracciones o incumplimientos del presente Decreto será, amén del contenido en la legislación aplicable en materia de seguridad pública, el establecido en el Título V de la Ley 6/1993, de 29 de octubre, de Protección de los Animales, desarrollado parcialmente en el Capítulo IV del Decreto 444/1994, de 15 de noviembre, sobre autorización, registro y control de núcleos zoológicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– Horretarako, gainera, 6/1993 Legearen 27.2.h) artikuluaren testuinguruan, dekretu honetan jasotako xedapen hauek urratzea ere hartuko da arau-hauste larritzat:

a) Animalia uhal egokiaz loturik ez edukitzea, 4. artikuluan xedaturikoa urratuz.

b) «Animalia arriskugarriak» edukitzeko baldintza berezietako edozein ez betetzea (5. artikuluan jasotakoak).

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Ahalmena ematen zaio Nekazaritza eta Arrantza sailburuari dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

***Bigarrena.***– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2000ko apirilaren 4an.

Lehendakariordea,
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

Nekazaritza eta Arrantza sailburua,
IÑAKI GERENABARRENA MARTINEZ DE LAHIDALGA.

2.– A tales efectos, se considerarán además infracciones graves, en el marco del artículo 27. 2 h) de la Ley 6/1993, la vulneración de las siguientes disposiciones contenidas en el presente Decreto:

a) El no mantener al animal sujeto mediante la correspondiente correa, conforme figura en el artículo 4.

b) El incumplimiento de cualquiera de las condiciones particulares de tenencia de «Animales de Riesgo» referidas en el artículo 5.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– Se autoriza al Consejero de Agricultura y Pesca para dictar cuantas disposiciones fueren necesarias para el desarrollo y aplicación de este Decreto.

***Segunda.***– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 4 de abril de 2000.

La Vicepresidenta,
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN

El Consejero de Agricultura y Pesca,
IÑAKI GERENABARRENA MARTINEZ DE LAHIDALGA.

# Agintariak eta Langileria

## Oposaketak eta Lehiaketak

### USURBILGO UDALA

### Zk-1821

IRAGARKIA, 2000. urterako Lan Eskaintza Publikoa onartu dela jakinarazteko.

2000ko otsailaren 29 eta martxoaren 28ko Gobernu Batzordeetan, Euskal Funtzio Publikoaren Legeak ezartzen duenarekin bat etorriz, 2000 urterako Lan Eskaintza Publikoa onartu zen:

Lanpostua: Liburuzain laguntzaile.
Lanpostu kopurua: 1.
Lanbide maila: 12.
Taldea: C.
Hizkuntz eskakizuna: 3.
Hautaera: Lehiaketa oposizioa.

Lanpostua: Kale garbitzaile.
Lanpostu kopurua: 1.

# Autoridades y Personal

## Oposiciones y Concursos

### AYUNTAMIENTO DE USURBIL

### N°-1821

ANUNCIO relativo a la aprobación de la Oferta de Empleo Público del año 2000.

Por acuerdo de las Comisiones de Gobierno de 29 de febrero y 28 de marzo de 2000, y de conformidad con cuanto se establece en la Ley de la Función Pública Vasca de aplicación al caso, se aprobó la Oferta de Empleo Público del año 2000, conforme al siguiente detalle:

Puesto: Ayudante de biblioteca.
Número de puestos: 1.
Nivel del puesto: 12.
Grupo: C.
Perfil Lingüístico: 3.
Modo de selección: Concurso-oposición.

Puesto: Barrendero/a.
Número de puestos: 1.